

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hezkuntza kontseilari Maria Solanak Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalaren ikasturte akademikoaren hasieran parte hartu du

Aurten bi espezialitate berri eskaintzen dira Kontserbatorioan, baxu eta gitarra elektrikoa

Asteazkena, 2017.eko urriak 18

Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalaren ikasturte akademikoaren hasieran parte hartu du gaur arratsaldean Hezkuntza kontseilari Maria Solanak. Kontserbatorioak arte eta batez ere musika ikasketa profesionalen alde egiten duen lana goraipatu eta eskertu du kontseilariak, eta lan horretan Departamenduaren babesa adierazi nahi izan dio zuzendaritza taldeari.



Aurten 594 ikasle arituko dira kontserbatorio profesionallean eta beste 322 goi mailako kontserbatorioan.

Aurten bi espezialitate berri ezarri dira Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionalaren, baxu eta gitarra elektrikoa. Eskari handiko bi musika tresna dira bai Nafarroako Musika Eskoletan, bai Goi Mailako Kontserbatorioan, eta ikasturte honetan emandako urratsarekin ikasle horiek ikasketa profesionalak egiteko aukera ere izango dute aurrerantzean.

Era berean, bada ikasturte honetan abiaraziko den beste berritasun bat ere: partitura digitalak erabiltzeko sistema. "Ekintzailletza eta artea batu dira oraingoan, Nafarroako enpresa berritzaile batek sustaturik, eta hori ere garrantzitsua da gaur egun bizi dugun egoera ekonomiko honetan", adierazi du Solanak. Blackbinder izeneko proiektua Hezkuntza eta Garapen Ekonomikoa departamenduen laguntzarekin jarriko da abian Pablo Sarasate Kontserbatorioan. Tabletetan erabiltzeko aplikazioak paperezko partiturak ordezkatzeko dituzte eta erraztu egiten du musikariaren jarduna. Aurten, esan bezala, Kontserbatorioa sistema horrekin lanean hasiko da.

Nafarroan musika-ikasle kopuru egonkorra dago maila profesionallean. Aurten 594 ikasle arituko dira kontserbatorio profesionallean eta beste 322 goi mailako kontserbatorioan.

Galería de fotos



Blackbinder proiektua.